

Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)

Gotzon Aurrekoetxea Olabarri
EHUko irakaslea, UEUKidea

Dialektoen eta hizkuntza estandarren arteko harremanak lantzeko ikuspuntu teorikoaren bilaketan abiatzen da artikulua. Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze-motetan eta tipologian sakondu ondoren euskararen bi gunetako kasuak aztertzen dira: Arratiako Dima eta Gipuzkoako Goierri. Ezaugarri fonologikoak, morfologikoak eta sintaktikoez gain lexikoa ere aztertzen da.

The article starts in search of the theoretical point of view of the relationship between dialects and standard language. After going deeply into the type of levelling between the standard language and the dialects, and his typology, the author examines two cases on the basque language: the case of the speaked language in Dima, in Bizkay, and the case of the speaked language in Goierri, en Gipuzkoa. In these two areas he investigates phonological, morphological and syntactical characteristics, without forgetting the lexical characteristics.

0. Sarrera

“The traditional Danish dialects are dead in the sense that they are no longer used in the younger generations” (T. Kristiansen 1998, 115)

Esaldi honek zer pentsatu eman beharko lioke euskararen estandarizatzelanetan diharduenari eta, oro har, ondorioz, hizkuntzaren kalitateaz arduratzen den edonori ere.

Zeren esanak esan eta gura diren argudio guztiak ipini arren ere, hizkuntza aberatsa, kalitatezkoa... eraiki gura badugu, ezinbesteko dugu, besteak beste, gaurko euskara batuari ipini zaion, dioten, beharbada diogun, kortse estuegia askatzeko euskarak bere aldaeretan ostendurik dituen aberastasunak biltzea eta forma estandarera ekartzea.

Euskalkiak edo tokian tokiko hizkerak eta euskara batua edo estandarraz gure artean sarri eta asko berba egin eta idatzi da. Hasiara batean euskalkiak eta euskara batua elkarren kontra jartzea modan bazegoen ere, orain elkarren osagarri direla esatea bihurtu da moda. Ikerketa eta marko teoriko batean ezarritako datu objektiboan faltaz iritzi subjektiboak eman izan dira; maiz errepikatzearen errepikatzeaz aspertzera inoko topikoak erabiliz. Hala ere, azkenaldion poztasunez hartu ditugu arlo honetako lehen ikerketa sakonak ere; horien artean kokatu behar dira Juan Luis Goikoetxea eta Julen Maiaren tesiak, adibidez.

Ez dut jardungo zein leku dagokion euskalkiari edo tokian tokiko hizkerari eta zein hizkuntza estandarri zehazten, eredu horien artean sortzen den elkarreragina ikuspuntu teorikotik aztertzen baino. Hain zuzen ere, estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak aztertzen. Eta ez historian zehar gertatu direnak², gaur egun gertatzen direnak baino. Eta hau European aldaera estandar eta dialektoen artean gertatu diren bateratze-joerak aztertu dituztenen marko teorikoa erabiliz.

1. Bateratze-prozesu motak

Hainbat bateratze-prozesu gerta daitezke. Bi aipatuko ditugu hemen:

1.1. Dialekto eta estandarren arteko bateratze-joerak

Hizkera estandarren hedakuntzak eragin handia izan du dialektoen egituran. Eragin hori “konbergentzia” terminoarekin deskribatu ohi da; hau da, aldaera indartsuak (estandarrek) aldaera ahula (dialektoa) asimilatzen edo bereganatzen du. Nahiz bestelako fenomenoak ere gerta daitezkeen.

Bateratze-prozesu hauek lehen-lehenik lexikoan agertzen omen dira eta ondoren gramatikan. Arlo hauetan aldaera ez-estandar eta estandarren arteko desberdintasunak oso nabariak dira entzumenerako, arlo fonetikoan gerta daitezkeenak baino gehiago.

1. Artikulu hau Euskaltzaindiaren XV. biltzarrean irakurritako eta ondoren ukitu batzuk egindako txostena da.

2. Hauek aztertzeko ikus K. Mitxelena 1992 eta J.A. Lakarra 1989 edo 1992.

Dialektoen bateratzea estandarraren inguruan gertatzen da gehienetan; horrela denean bateratze dialektal bakar edo bateratze dialektal monozentrikoaz hitz egiten da.

Bateratze hauetan dialektoak barietate primitibotzat jotzen dira inplizituki, estandarrari lekua utzi behar dioten barietatetzat (hizkuntza berria/hizkuntza zaharra). Posizio hauex da, hain zuzen ere, aldaera dialektalak 'txartzat' (ez-zuzentzat) hartzen dituzten irakasleena.

1.2. Bateratze-prozedurak dialekto/estandarraren arteko dinamikatik independientek

Dialektologo guztiak ados daude dialektoen heriotza Europan aldaera estandarren posizio indartsuaren ondorio dela.

Baina bateratze dialektala gerta daiteke estandar erregionalen inguruan ere; orduan bateratze dialektalaren prozesu edo bateratze dialektal polizentrikoaz hitz egiten da.

Auer-en esanetan (1998, 5) gaur egun dialektologian arazo garrantzitsuena aldaera dialektal erregionalen egoera estandarreranzko konbergentzia-urrats gisa interpreta daitekeen jakitea da. Badirudi ez dela nahitaezkoa eta, ikerketa enpirikoek adierazten dutenez, aldaera erregionalen bilakaera eta hedatzeak aldaera estandarretik dibergentzia inplika dezakeela.

2. Bateratze-prozeduren tipologia

Dialektoen eta estandarraren arteko prozeduren tipologia zehaztu da Europan azkenaldion egin diren ikerketetan. Ikus ditzagun garrantzitsuenak:

2.1. Bateratze osoa eta guztiz burutu gabekoa

2.1.1. Aldaera estandarreranzko konbergentzia oso-osoan, bere egitura fonologiko edo morfologikoan, gerta daiteke. Kasu hauetan dialektoa guztiz galtzen edo desagertzen da.

2.1.2. Guztiz burutu gabeko konbergentzia. Kasu honetan dialekto eta estandarraren arteko zerbait sortzen da. Adibide morfologiko bat aurkeztuko dugu, Christen-en lanetik hartua (1998, 57-58). Suitzako aleman dialektoan mintzo den gazteak atzizki 'berriak' erabiltzen ditu adjektibo atributiboetan nominatibo eta akusatibo singularrean, tradizionalki 'zero' atzizki izan den lekuan (*di alt frau* 'andre zaharra') beste hau sortuz: *di alt-i frau*. Atzizki berria itxuraz aldaera estandarretik (*di alt-e frau*) desberdina izan arren, estandarraren teknika morfologiko berak (atzizkia vs zero atzizkia) erabiltzen ditu eta dialektoa estandarraren antzekoago egiten du. Hau izan daiteke aldi berean kostuak txikitu eta ondorioak maximalizatzeko aldaera erregional berriek duten bideetarik bat.

2.2. Konbergentzia bertikala eta horizontala

Estandar eta dialektoaren arteko bateratzea bi dimentsiotan gertatzen da: 'horizontala' eta 'bertikala' (Auer 1998). Konbergentzia bertikala estandar eta dialektoaren artekoari deitzen zaio; konbergentzia horizontala dialektoen artekoari.

Konbergentzia bertikalak sarri konbergentzia horizontala ere badakar. Izan ere, estandarreranzko prozesuan batera doazenean, estandarraren eta dialektoen arteko distantzia txikituz doan bitartean, dialektoen arteko forma desberdinak ere urrituz joaten dira (ikus Auer & Hinskens 1996).

Konbergentzia edo bateratze bertikal eta horizontalaren prozesua, hizkuntza komunitate nazionalaren perspektibatik ikusten denean, noiz edo noiz dialekto eta estandarraren arteko (eta batzuetan dialektoen arteko) aldaera berri batekin hasten da. Aldaera berri horiek izendatzeko 'erregiolekto' (regiolect) eta 'estandar erregionala' (regional standards) terminoak asmatu dira (Auer 1998, 2). Honelako prozesuetan gerta liteke hasierako egoera **diglosikoa** (aldaera estandarra dialekto askoren gainetik dagoela adierazten da) desegin eta Bellmann-ek deitzen duen **diaglosikoa** bihurtzea³.

Kontzeptualizazio-lan honetan Günter Bellmann-ek (1998) 'Base dialektala' kontzeptua erabiltzea proposatzen du, eremu txiki batean, herri txikietan batez ere, berba egiten den eta estandarrarekin hizkuntz ezaugarri kopuru handienaz bereizten den aldaera izendatzeko. Alemanaren eremuan %10 inguru izango dira base dialektalean mintzatzen direnak. Gaur egun base dialektalak herriz kanpo mugitzen ez diren eta komunitate lokaleko kide zaharrentzat bakarrik dira komunikatzeko era.

2.3. Aldaketa endogenoa ('naturala') eta ukipenaren eraginez egindakoaren arteko lotura

Aldaera dialektalak bihur daitezke berdinago edo ez beste batekin edota aldaera estandarrarekin barne-berregituraketa edo berrikuntzen ondorioz ere. Gainera, barne-berregituraketa eta beste aldaketa endogeno batzuk dialektoen arteko ukipenak eraginak izan daitezke. Hipotesizat jotzen da aldaera estandarreranzko konbergentzia indarturik izango dela aldi berean prozedura 'naturalagoa' bada; oztopatua izango da forma estandarra dialektokoa baino 'ez-naturalagoa' bada.

Horrela dio Taeldeman-ek (1998): estandarraren prozesua oso 'antinaturala' eta dagokion prozesu dialektala 'naturala' bada, dialektoak gorde egiten du bere egitura.

Estandarraren eta dialektoen edo dialektoen arteko konbergentzia-prozedurak ulertzeko hitzunek hurbiltze- edo urruntze-prozesu sozialetan, adibidez, 'identitate-ekintzetarako' hizkera nola erabiltzen duten aztertu behar da (Auer 1998, 8). Gizarte konplexu batean taldeak ez daude eta muga geografiko gisa definituak, espazio sozial dinamiko bezala baino.

3. **Diaglosia** kontzeptua honela definitzen du: ageri diren bi muturren artean, ezaugarrien *continuum* bat dago; zeinetan, dialektoa, hizkuntza-interferentziaren ondorioz, substandarraren parte izanik, bere ezaugarriak, batez ere ezaugarri nabarrienak, galtzen doan (1998, 24). Auer-ek Bellmann-en *diaglosia* aipatzean honela azaltzen du: gainerako aldaera edo formen *continuum*ak guztiz betetzen du estandar eta dialekto tradizionalen arteko espazio estrukturala (1989, 2).

2.4. Konbergentzia indartsu eta ahulak

Bateratze indartsu eta ahulaz ere hitz egiten da: indartsua (tipo I bezala ere ezagutua) dialektoa desagerrarazteraino eraman lezakeena da; bateratze-tipo ahul edo motela (tipo II bezala ezagutua) denean dialektoak ezaugarri batzuk baino ez ditu galtzen.

Konbergentzia edo bateratze-tipo biak aurki daitezke, adibidez, alemanean. Saxonia Garaia, Thuringia Mendebaldea eta Brandenburg Hegoaldean, adibidez, bateratze-tipo I gertatzen da. Saxonia Garaia **konbergentzia-tipo indartsuaren** adibide bereziki hunkigarria omen da, zeinetan estandarraren interferentziaren ondorioz dialektoa ia-ia desagerrarazi den.

Konbergentzia-tipo ahul edo motela (tipo II) Alemania Garaiko dialektoen eremuan gertatu da, zeinek nagusiki ez diren zuzenean egokitu hizkuntza kolokial deituriko formetara, dialekto berria (*new dialekt/Verkehrsmundarten, Grobmundarten*), erdi-dialektoa (*semi-dialect/Halbmundarten*) edo dialekto erregionalak (ikertzaile desberdinen arabera) deituriko formetara baino.

Bateratze-joerak modu zehatzean aztertzeko Bellmann-ek *Rhine Erdialdeko Hizkuntz Atlas (MRhSA)* erabili du. Atlas horretan bi belaunaldi inkestatu ziren: 70 urtekoak, eta 30-40 urtekoak. Mapen erdia inguru kontrastiboak dira, hau da, bi serietako datuak elkarren aurrean jartzen dira kolorez berezita. Horrela, dialekto-tasun-maila aztertzeko beta dago. Bi datu-taldeak konparatuz hizkuntzaren aldaketa-joeraren norabidea eta gradua atzematen dira. Beste berba batzuetan, konbergentzia-joerak jarraitzeko ahalmena ematen diote.

Adibide lexikal bat aukeratu dugu: Germaniako erdi-mendebaldean erabiltzen da edo zen *Gesäms* izen kolektiboa, ‘seed/garaua, bihia’, eta Germaniako hizkuntza estandarreko formarekin identifikatzen den *Samen* aldaera berriagoa. Jadantik I seriean badira *Gesäms* itxaroten zen arean aldaera lehiakidearen agerriera batzuk, ekialdetik abiatuta, zeina eremu horretan berrikuntzen hedatzearen norabide orokorra den. Serie 2-an *Gesäms* eta *Samen* formen arteko harreman kualitatiboa alderantziz jarri da: %88 forma zaharrenak serie 1-ean eta %35 serie 2-an. *Gesäms* formak jarraitzen du ordezkatua izaten (ikus mapa eta diagrama). Forma zaharraren gutxitzeak eta forma berriaren gehitzeak erakusten dute hizkuntza estandarreranzko konbergentzia eta kontrastearen urritzeko joera.

2.5. Dialekto eta estandarraren arteko aldaera berrien sorrera

Dialekto eta estandarraren arteko harremanetan, bateratze-joeretan, bitarteko aldaerak sortu ohi dira usu, ikerketa desberdinek erakusten dutenez. Peter Auer eta Frans Hinskens-ek (1996, 7) lau maila bereizten dituzte: estandar nazionala, estandar erregionalak, dialekto erregionalak edo erregiolektoak eta dialekto tradizionalak, ondoko irudian ikus daitekeenez (ikus Auer 1998, 2 ere).




Hirukiaren inguruan bildutako aldaeren rola ere aztertua izan da. Horrela egiten du, adibidez, Van Coetsem-ek (1988; 1992: 30 eta h.) aldaera-emaile edo aktiboa eta aldaera-hartzailea bereizten dituenean. Dialektoko hiztunek estandarreko material lexiko zein hizkuntza-ezaugarriak bereganatzen dituztenean dialektoko hiztun horiek rol agentea dutela esaten da. Horrela, estandar erregionala dialektoko hiztunek nazio-mailako estandarra lortzeko egiten duten arrakasta partzialeko ahalegina baino ez litzateke izango. Gai honen inguruko ikerketa asko dago (Berruto 1983, Spitzer 1922 italiararako; alemanerako Hinskens 1992), baina aldaera berrien sorreran diren hizkuntza-mekanismoak oso gutxi ezagutzen dira oraindik.

Aldaera berrien hizkuntza-ezaugarrietan sakontzeko asmorik gabe, esan daiteke horien gramatika eta fonologia gutxiago markatuta izateko joera izaten dela, erregularragoa eta sinpleagoa.

Dialekto erregional edo erregiolekoen eta estandar erregionalen sorreran hiri handien rola handia omen da ikerketen arabera. Gehienontzat ezaguna den adibidea jartzeko, Andaluzian gaztelania estandarren bi aldaera erregional sortu dira: 'norma sevillana' eta 'malagueño' deituak (Villena 1996). Auer eta Hinskens-ek diotenez (1996, 10), dialektoko erregional edo erregiolekoen garatzeak dialektoko tradizionalen biziraupenaren berme dira (hori gertatzen omen da Calabria eta Italiako hegoaldeetan Trumper/Maddalon 1988 eta 1994aren arabera), nahiz guztiz desagertu ere egin daitezkeen, ondoko irudian ikus daitezkeen legez (Goi Saxonian gertatzen omen da).

aldaera estandar nazionala



dialekto tradizionalak (galduak)

(Auer & Hinskens 1996, 11)

Horixe gertatu omen da Danimarkan Tore Kristiansen-en esanetan (1998, 120), non dialekto tradizionalen %5 baino gutxiagok hitz egiten duen, zaharrak barne; denak Copenhage-ko aldaeraz jabetu dira.

3. Bateratze-joerak euskarari

Gure inguruko hizkuntzetako ikerketak gogoan izanik, zilegi bekit gure hizkuntzaren kasuan zer gertatzen ari den itauntzea. Gureko estandarizatzeko-lanetan norantz goazen eta zein abiaduratan itaundu beharra dugu, nor edo nork kontrolatzen duen edo inork kontrolatzen ez duen edonora ote goazen.

Gai honen inguruko ikerketa-hasiera baten emaitzak dakarzkizuet. Bateratzearen abiadura, batetik, eta ereduak, bestetik, neurtzeko egin gura dudako ikerketa-hasieraren emaitza batzuk, hain zuzen ere.

3.1. Arazo terminologikoak?

Baina emaitzak azaltzen hasi aurretik hemengo eta hango ikerketak irakurtzean ikusi ditudan desberdintasun terminologikoak aipatu gura nituzke. Izan ere, gurean erabiltzen diren terminoak eta kanpoan erabiltzen direnak ez baitatoz bat. Gurean erabiltzen direnak etxean ibiltzeko egokiak izan daitezkeen arren, kanpokoak ere irakurtzeko beharra dugunontzako ere egokiak izan daitezkeen aldaketatxo batzuk egin beharrean gaude. Nazioartean lau mailatan sailkatzen da hizkuntza *continuum*: a) nazio-mailako estandarra, b) eskualdeko estandarra, c) erregiolekoa edo dialekto erregionala (erdi-dialektoa edo dialekto berria ere) edo d) 'base dialektala' edo dialekto tradizionala.

Gurean Elexpuruk (1996, 525) 'berbeta-eskualdea' kontzeptua lantzen du. Horrela, Leintz (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta, agian, Aramaio), Oñati, Bergara, Eibar eta Elgoibar edo Txorierri, Goierri, Baztan.... izango lirerateke 'berbeta-eskualde'. Zuazok bi kontzeptu erabiltzen ditu: 'nazioko batua' eta 'eskualdeko' edo 'herrialdeko' batua⁴.

4. 'Eskualdeko batua'ren ezaugarriak hauek lirerateke: «Euskara Batuaren egiturari eutsiaz, eskualdeko lexikoa, sintaxia eta bertako zenbait ezaugarri fonologiko eta morfologiko darabilena»; 'eskualdeko substandarra' ere deitzen du (*Euskararen sendabelarrak*, 168).

Terminook erkatzen hasiz, eta Elexpururena albo batera utziz, zalantza daukat Zuazoren 'eskualdeko edo herrialdeko batua' eta nazioartean erabiltzen den 'eskualdeko estandarra' itxuraz gauza bera diren arren, benetan bat diren. Badirudi bata (Zuazorena) euskalkia batuaren arropekin jantzia dela eta, bestea, (eskualdeko estandarra) aldaera estandarra eskualdeko bereizgarriekin jantzia. Hau da, batean, lehenengoan, batutik desberdintzeko helburuz sortua, bestea ingurune batean ekoizten den batua. Beste era batera esanda: Zuazoren 'eskualdeko batua'k 'erregiolekto'arekin lotura handiagoa du, nire ustez, 'eskualdeko estandarra'rekin baino. Beraz, antzeko terminoak erabili arren kontzeptu desberdinak biltzen dituzte. Dena den, utz dezagun gaia hemen, astia izango dugu eta geroago batean berrartzeko.

3.2. Bateratzearen abiadura eta eredia

Gure arteko hainbatek hizkerak eta dialektoak modu pasibo batean ikusten baditu ere (pertsone zaharrak, inoiz herritik irten bakoak, guraso eta aitita-amomak bertakoak dituztenak, senar edo emaztea bertakoa dutenak, inoiz ez dutenak irakurtzen eta kanpoko berbakera inoiz entzun bakoak), errealitatea jada ez da hori; hori baino nabarragoa da. Hizkera edo herri baten ordezkari ezin da, besterik gabe, ezaugarri horiek biltzen dituen jendea izan; ez hizkuntza kontuetan, ezta bizitzaren gainerako alderdietan ere.

Ingurune batean bizi den jendeak hitz egitean sortzen duena da bertako hizkera. Hizkera hori ez da monolitikoa. Herri horretako adinduak eta gazteak, ez ikasiak eta ikasiak, bulegariak eta baserritarrak mintzatzen dira hizkera horretan.

Euskalkiak eta euskara batuaren edo estandarraren arteko interakzioan elkarre-ragina dagoela inork ukatzen ez badu ere, inor gutxik itaundu du zer gertatzen ari den bien arteko harreman horietan. Zeinek zeinengan eragiten duen. Joera bate-ratzailerik ba ote dagoen. Bateratze-joera bizia ala motela bizi dugun gaur egun gure herrietan. Euskararen lurralde guztietan joera bera eta indar berarekin gertatzen ari ote den.

Itaun horien erantzunak bilatzeko asmoz hasi dut⁵ arestian aipatu den ikerketa. Berau hiru adin desberdinetako jendearen hizkerak aztertuz burutu da⁶.

Datuak eskaintzean arloka aurkeztuko ditut: fonologia, morfologia, sintaxia (Dimako datuak baino ez) eta lexikoa. Jaso diren datuak multzo bitan bildu dira: *herrikoa* zutabeen herri edo inguru horretan dialektologia tradizionalen biltzen diren datuak (jende zaharrei, herriko semeei, herritik irten gabekoei... jasoak); zutabe horretan 'hizkuntza-iraunkortasuna' neurtu gura izan da, herriko hizkerari



5. Inkestaren datuak:

- Helburua: euskara batua eta hizkeren arteko harremanak ikertzea.
- Inkesta-lekuak: Gipuzkoan (Goierri) eta Bizkaian (Diman).
- Inkesta: galde-sorta itxia.
 - Gipuzkoan 66 itaun: fonologia (19), morfologia (22), lexikoa (25).
 - Bizkaian 128 itaun: fonologia (31), morfologia (30), sintaxia (17), lexikoa (50).
- Lekukoak: >60, 40, 16-18 urtekoak.

6. Hemen aurkezten dizkizuedan datuak behin-behinekoak dira; egin gura dudako ikerketa handiago baten hasikinak: badira zuzendu eta sakondu beharreko gauzak oraindik. Beraz, datuak tentu handiz har ditzazuen eskatzen dizuet.

zaion atxikimendua, alegia. *Jasoa* zutabeen kontrako joera biltzen da: eskolan ikasitako edo hedabideetatik jasotako euskara mota. Izatez 'herriko formei atxikimendurik eza' adierazten du zutabe horrek, (herriz) kanpoko kulturak edo kulturek ekarritako formak. *Biak* zutabeen bi erantzun (*herrikoa* eta *jasoa*) jaso direnean biltzen dira.



3.2.1. Fonologia



Ikaragarritzko aldea dago bi inkesta-lekuetan fonologiari dagokionez. Gipuzkoa-ko Goierrin ederki eusten diete herriko ezaugarriei. Bai 40 urte inguruko jendeak (%98an eusten diete herriko ezaugarriei), baita gazte jendeak ere (%97an). Horiek eskolako eredia eta herrikoa maisutasunez bereizten dituzte eta ez dago ia-ia interferentziarik herrian lagunartean hitz egiten dutenean. Herriko ezaugarrien atxikimendu handia dagoela oso argi erakusten du diagramak.

Diman gertatzen dena, aldiz, ez da hain kilikagarria. Herriko formenganako atxikimendua jaitsi egiten da Goierrikoarekin erkatuz helduen artean (%87k eusten die herriko formei). Are nabarmenago gertatzen da gazteen artean; Goierrin %97k eusten bazien herriko formei, Diman %64ra jaisten da atxikipena.

3.2.2. Morfologia




Fonologian legez morfologian ere, alde handia dago bi diagramen artean: Goierrin bai helduek baita gazteek ere eusten diete euren herriko ezaugarri

morfologikoei modu finko batean, nahiz ez fonologian erakutsi duten fideltasun ia erabatekoarekin. Hala ere, %84ko fideltasun-maila handia da.

Dimako diagramari erreparatzen badiogu eta datuek benetako errealitatea islatzen badute, modu kezagarrian hartzeko modukoak direla onartu beharko genuke. Berriz diot era zabal eta sakonago batean ikertu gura dudana dela eta hau abiapuntua baino ez dela. Helduek %100ean eusten dieten bitartean, gazteek %51n baino ez dute egiten. Belaunaldi batean ia ezaugarri morfologiko erdiak berriekin ordezkatu izan dira.

3.2.3. Sintaxia



Diman baino ez da egin sintaxiari buruzko galdeketa.



Kasu honetan datuak bi multzotan bildu ordez hirutan bildu dira: herriko forma baino ez denean jaso, forma jaso baino ez darabiltenean eta biak eman dituztenean.

Helduek atxikimendu handia erakusten duten bitartean (%86), gazteek %43an baino ez dute egiten. Eta %14an bi formak eman dituzte: herrikoa eta forma jaso, ikasia.

3.2.4. Lexikoa




Goierri fonologia eta morfologian baino askoz ere dialektotasun txikiagoa erakusten dute datuek: %60 an baino ez dira herriko berbak jaso helduen artean. Gazteen artean, aldiz, gehiago dira ikasiak edo herrikoak ez diren (uler bedi dialektologia tradizionalan herrikotzat jotzen ez diren) berbak.

Diman, ostera, helduen atxikimendua oso handia da (%94), baina gazteengan %51ra baino ez da heltzen. Dena den, Goierriin erakutsitakoa baino handiagoa, zalantza barik.

3.2.5. Osotara


Datu guztiak diagrama batean sartuz, herrika ondoko emaitzak lortzen dira: Gipuzkoako Goierriin %88an eusten diete bertako ezaugarriei helduek eta %74an gazteek. Esan liteke bertako hizkera eta estandarren arteko bateratze-prozesua orekatua dela, hein batean.

Diman helduek ezin hobeto eusten badiete ere, gazteak jada lerratu dira estandarren atzaparretan, %52an baino ez diete eusten eta herriko ezaugarriei. Hemen bertako hizkera eta estandarren arteko bateratze-joera bizia da. Eta bitartekorik ez bada jartzen epe laburrean, pentsa liteke estandarra nagusituko dela osorik, bertako ezaugarriak galduz.



3.2.6. Helduak eta gazteak

Bi inkesta-lekuetako helduak eta gazteak konparatuz lortu dira diagrama hauek. Helduei dagokienez, herriko hizkeren ezaugarriak hobeto gordetzen dituzte Diman Goierriin baino. Baina gazteen mailan alderantziz gertatzen da.



3.3. Ondorioak

Diagramek argiro erakusten dutenez, bateratze-joera gazteen artean bortitza da, zalantzarik gabe. Gorago esan bezala, lexikoan gertatzen dira indize handienak, ondoren sintaxian eta morfologian, eta azkenen datoz ezaugarri fonologikoak.

Datuek erakusten dutenez Bizkaia aldean (eta Gipuzkoan?) gazteria euskara estandarera lerratu da. Aldaera dialektaletatik hain urrun diren formak eskoletan irakatsi eta erabilaraziz guraso eta aitita-amonen belaunaldiarekin deserrotuz doa. Deserrotzearen abiadura uste eta behar baino lasterragoa dela iruditzen zait. Euren hizkera eskolaz kanpoko loturarik gabe gelditzen ari da. Kulturazko deserrotzeari hizkuntzazkoa gehitzen ari zaio une honetan, aurreko munduarekin zubia egiteko beharrezko den hizkera ez da horretarako gai.

Alde batetik, euskalkiak eta estandarra urruntzen badira eta, bestetik, irakas-kuntzan estandarra baino ez bada erabiltzen, puzzlea osotu da: urte gutxi barru euskara bakarra izango dugu. Bateratze-joera bizenaren ezaugarriak dira eta ondorio garbiak aurreikusten dira.

Gauzak horrela, bateratze-joerak orekatzeko lanik egiten ez bada, jardunean den hizkuntza-ideologia edo ideologia estandarra Tore Kristiansen-en hitzetan ('standar ideology') ez bada errotik aldatzen, bi belaunalditan galduta egongo dira dialekto tradizionalak. Europan (Dinamarkan, Alemanian...) jazo den egoera berean izango gara.

4. Azken berbak

Hasieran aipatu dut, sasoi batean euskalkiak eta euskara batua aurka jartzea modan zegoela eta orain "osagarriak" direla esatea. Nire ustez, baina, etenik bako eta ekidin edo saihestu ezin den lehian dihardute. Lehia horretan euskara galtzen ez ateratzea da helburua.

Henrike Knörr-en hitzak⁷ hartuz, euskararen etorkizuna batua eta euskalkien arteko oreka zaindu zuhurrarekin lotuta dago. Joera integratuak indartu behar dira; horiek indartzen ez diren bitartean, gure euskara batua zabala egiten ez den bitartean, jendea hizkeretatik urruntzen joango da, euskararen aberastasuna galduz joango da.

Lizardiren hitzak, Mitxelenak "Lengua común y dialectos vascos" lanean bezala, neure eginez «azal orizta, muin betirakoa», zuztar tradizioaletatik sortutako enbor berria nahi dugunok ez dugu nolana hiko euskararik gura.

Bibliografia

- Ammon, U. (1998): "Measuring the Broadness of Dialectal Speech", *Sociolinguística* 12, 194-207.
- Auer, P. eta A. di Luzio (arg.) (1988): *Variation and Convergence*, de Gruyter, Berlin.
- Auer, P. (1998): "Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 1-9.
- Auer, P. eta Hinskens, F. (1996): "The Convergence and Divergence of Dialects in Europe. New and not so New Developments in an Old Area", *Sociolin-guística* 10, 1-30.
- Bellmann, G. (1998): "Between Base Dialect and Standard Language", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 23-34.

7. Donostian 2001.eko ekainaren 31n ospatu zen "Diversidad y convivencia lingüística en la Unión Europea" simposiumean emandako hitzaldia.

- Christen, H. (1998): "Convengence and Divergence in the Swiss German Dialects", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 53-67.
- Elexpuru, J. M. (1996): "Herri-euskararen eremua", *Euskera* 41, 523-529.
- Euskaltzaindia (1996): II. Jagon jardunaldiak, Tolosan, *Euskera* 41-3.
- Gerritsen, M. (1991): "Mechanisms of standardization. An investigation of changes in three similar dialects under influence of three different standard languages", in E. van Hout eta E. Huls (arg.), *Artikelen van de Eerste Sociolingüistische Conferentie. Lunteren, November 1991*, Eburon, Delft.
- Haritschelhar, J. (1991): "Dialectes et standardisation", *Bulletin du Musée basque* 131, 1-11
- Haugen, E. (1968): "Dialect, language, nation", in E. Haugen, *The Ecology of Language*, Essays by Einar Huagen. Selected and introduced by A. S. Dil, Stanford 1972, 237-254.
- Herrgen, J. eta Schmidt, J. E. (1989): "Dialektalitätsareale und Dialektabbau", in Wolfgang Putschke, Werner Veith eta Peter Wiesinger (arg.), *Dialektgeographie und Dialektologie*, Marburg: Elwert, 304-346.
- Hinskens, F. (1992): *Dialect Levelling in Limburg. Structural and Sociolinguistic Aspects*, PhD-dissertation, University of Nijmegen. An abridged and re-revised version will be published fall 1996 by Niemeyer Verlag, Tübingen.
- , 1998, "Dialect Levelling: A Two-dimensional Process", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 35-51.
- Kristensen, K. eta Thelander, M. (1984): "On dialect levelling in Denmark and Sweden", *Folia Linguistica* XVIII/1-2, 223-246
- Kristiansen, T. (1998): "The Role of Standard Ideology in the Disappearance of the Traditional Danish Dialects", *Folia Linguistica* XXXII / 1-2, 115-129
- Lakarra, J. A. (1986): "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", *ASJU* XX/3, 639-682
- , (1992): "Bizkaieraren lekua beste euskalkien artean iraganeko garaietan" in askoren artean *Bizkaieraren lekua gaur*, Euskal Ikaskuntzen Institutua-D.U., Bilbo.
- Martín Zorraquino, M. A., (1998): "Sociolinguistic Attitudes and Beliefs Towards Dialectal and Standard Varieties in *La Franja Oriental de Aragón* (Spain)", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 131-143
- Mitxelena, K. (1976): "La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas", *REL* VI, 309-324 [orain in *Lengua e historia*, Paraninfo, 73-85]
- , (1992): "Fenómenos de convergencia en la historia de los dialectos vascos", *FLV* 24, 355-366
- Tældeman, J. (1998): "Levelling Phenomena in the Flemish Dialects", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 11-22
- Trudgill, P. (1986): *Dialects in Contact*, Oxford: Blackwell.
- Van Coetsem, F. (1988): *Loan phonology and the two transfer types in language contact*, Foris, Dordrecht.
- , (1992): "The interactions between dialect and standard language, viewed from the standpoint of the Germanic languages", in J.A. van Leuvensteijn & J. B. Berns (arg.), *Dialect and Standard Language*, North Holland, Amsterdam, 15-70.
- Van Leuvensteijn, J.A., eta Berns, J. B. (arg.) (1992): *Dialect and Standard Language*, North-Holland, Amsterdam.
- Zuazo, K. (2000): *Euskararen sendabelarrak*, Iruñea.